OHI KANPOKOKO OSOKO BILKURA 10/11

UDALAK 2011ko MAIATZAREN 19AN EGINDAKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:
Marian Beitialarrangoitia Lizarralde and.

ALKATEORDEAK:
Idurre Lucas Ezkioaga and.
Juan Ignacio Arrieta Egilegor jn.
Usoa Barrutiabengoa Olazabal and.
Unai Erroitzenea Gamio jn.

ZINEGOTZIAK:
Juan Carlos Plazaola Burugain jn.
Izaskun Txintxurreta Ibabe and.
Izaskun Ezeiza Olazabal and.
José Pérez Dominguez jn.
Jose Ramón Chica Ramirez jn.
Estefania Morcillo Cerdan and.
Iñaki Barrio Sagastume jn.
Beatriz Fernandino Goitia and.
Mª Luz Anglada González and.

KONTU-HARTZAILEA:
Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIORDEA:
Pello Odriozola Zubizarreta jn

2011ko maiatzaren 19an ohi kanpoko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Marian Beitialarrangoitia Lizarralde alkate andrearen lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Pello Odriozola Zubizarreta idazkariordea.

**1.- AKTA ONARTZEA: 2011-04-26, 2011-04-28 ETA 2011-05-09.** 2011ko apirilaren 28ko akta mahai gainean utzi da eta besteak onartu dira.

**1.- APROBACIÓN DE ACTA: 26-04-2011, 28-04-2011 Y 09-05-2011.** El acta del 28 de abril de 2011 queda encima de la mesa, las restantes se han aprobado.

**2.- 2011KO APIRILAREN 21ETIK 2011KO MAIATZAREN 17RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.** 2011ko apirilaren 21etik 2011ko maiatzaren 17ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

* Alkate and.

**2.- DACIÓN DE CUENTA DE RESOLUCIONES ADOPTADAS ENTRE EL 21 DE ABRIL DE 2011 Y EL 17 DE MAYO DE 2011.** Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por los siguientes órganos unipersonales, durante el período comprendido entre el 21 de abril de 2011 y el 17 de mayo de 2011.

* Sra. Alcaldesa.

* Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
* Euskara, Kultura,Turismo eta Presoen delegatu and.
* Hezkuntza, Politika Soziala eta Hernani 2020ko delegatu and.

* Sr. Delegado de Servicios Públicos.
* Sra. Delegada de Euskera, Cultura, Turismo y Presos.
* Sra. Delegada de Educación, Política Social y Hernani 2020.

**3.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 7/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN HABILITAZIO BIDEZKOA).** Alkatetzak 2011ko maiatzaren 9an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **7/2011** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren kredituen habilitazio bidezkoa. Kopurua: **78.960,53 euro**.

**3.- DACIÓN DE CUENTA DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 7/2011 MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITOS DEL PRESUPUESTO DEL AYUNTAMIENTO DE HERNANI.** Se da cuenta de la Resolución de Alcaldía de fecha 9 de mayo de 2011, por la que se aprueba el expediente nº **7/2011** de modificación de crédito presupuestario mediante habilitación de créditos del Presupuesto del Ayuntamiento de Hernani año 2011, por importe de **78.960,53 euros**.

**4.- HERNANIKO OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZARAKO UDAL PATRONATUA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2010EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEN DUEN ALKATETZAKO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.** Udalbatza alkateak emandako honako ebazpen honen jakinaren gainean dago:

**4.- DACIÓN DE CUENTA DE DECRETO DE ALCALDÍA APROBANDO LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL ORGANISMO AUTÓNOMO "PATRONATO MUNICIPAL DE SALUD Y BIENESTAR SOCIAL DE HERNANI" CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2010.** El Pleno queda enterado de la siguiente Resolución de Alcaldía:

**DEKRETUA.-** Hernanin, bi mila eta hamaikako maiatzaren hamaikan

**DECRETO:** En la Villa de Hernani, a once de mayo de dos mil once

Fondoen Kontuhartzaile Ordeak osatu eta Erakunde Autonomoko Zuzendaritza batzordeak 2011ko maiatzaren 10ean onartu duen "Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua" Erakunde Autonomoko 2010eko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udal Entitateen Aurrekontu-Araudiaen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 49.3 artikuluan emandako ahalmenak erabiliz, honako hau

Vista la Liquidación del Presupuesto del Organismo Autónomo "Patronato Municipal de Salud y Bienestar Social de Hernani" correspondiente al ejercicio 2010, formulada por el Interventor de Fondos Delegado y aprobada por la Junta Rectora del Organismo Autónomo en sesión de fecha 10 de mayo de 2011, así como los documentos que integran la misma, y encontrándola conforme, en el ejercicio de las competencias que me atribuye el art. 49.3 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EBATZI DUT

RESUELVO

**Lehena.-** 2010eko "Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua" Erakunde Autonomoko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

**Primero.-** Aprobar la Liquidación del Presupuesto del Organismo Autónomo "Patronato Municipal de Salud y Bienestar Social de Hernani" correspondiente al ejercicio de 2010 y que presenta el siguiente resumen:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1.- | Diruzaintzako izakin likidoak, 10-12-31n<br>Fondos líquidos de Tesorería a 31-12-10 | | 147.098,92 |
| 2.- | Kobratu gabeko saldoak, 10-12-31n<br>Saldos pendientes de cobro a 31-12-10 | | 682.377,55 |
| | Aurrekontuko zordunak<br>Deudores presupuestarios | 682.377,55 | |
| | Aurrekontuz kanpoko zordunak<br>Deudores extrapresupuestarios | | |
| | - Aplikatu gabeko kobrantzak<br>- Cobros pendientes aplicación | | |
| 3.- | Ordaindu gabeko saldoak, 10-12-31n<br>Saldos pendientes de pago a 31-12-10 | | 755.819,50 |
| | Gastuen aurrekontuko hartzekodunak<br>Acreedores presupuesto gastos | 542.420,52 | |
| | Sarreren aurrekontuko hartzekodunak<br>Acreedores presupuesto ingresos | | |
| | Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak<br>Acreedores extrapresupuestarios | 213.464,30 | |
| | - Aplikatu gabeko ordainketak<br>- Pagos pendientes de aplicación | (65,32) | |
| 4.- | Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3)<br>Remanente de Tesorería bruto (1+2-3) | | 73.656,97 |
| 5.- | Saldo kobragaitzak<br>Saldos de dudoso cobro | | |
| 6.- | Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5)<br>Remanente de Tesorería líquido (4-5) | | 73.656,97 |
| 7.- | Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako-gerakina<br>Remanente de Tesorería para gastos con financiación afectada | | |
| 8.- | Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7)<br>Remanente de Tesoreria para gastos generales (6-7) | | 73.656,97 |
| 9.- | Aurtengo aurrekontu eragiketen emaitza<br>Resultado operaciones presupuestarias del Presupuesto vigente | | (84.421,71) |
| 10.- | Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza<br>Resultado operaciones de presupuestos liquidados en ejercicios anteriores | | (18.315,29) |

| | | |
|---|---|---|
| 11.- | Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik<br>Ajuste obligaciones financiadas con Remanente de Tesorería | |
| 12.- | Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik<br>Ajuste desviaciones en gastos con financiación afectada | |
| 13.- | Aurrekontu emaitza (9+10+11+12)<br>Resultado presupuestario (9+10+11+12) | (102.737,00) |
| 14.- | Txerta daitezkeen kreditu gerakinak<br>Remanentes de créditos susceptibles de incorporación | 33.163,03 |
| 15.- | Txertatu ezin diren kreditu gerakinak<br>Remanentes de créditos no incorporables | |
| 16.- | Kreditu gerakinak, guztira (14+15)<br>Total Remanentes de crédito (14+ 15) | 33.163,03 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bildaltzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoako Udal Entitateen Aurrekontu-Araudiaren abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Segundo.- Remitir copia del Expediente de liquidación a la Diputación Foral de Gipuzkoa en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49.5 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Hirugarrena.- Udal Osoko Bilkurari Dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Tercero.- Dar cuenta del presente Decreto al Pleno municipal en la próxima sesión que se celebre.

5.- ORONA, S.COOP.AK ETA PARQUE TECNOLÓGICO DE SAN SEBASTIAN, S.A.K AURKEZTUTAKO 10.5 SEKTOREKO (GALARRETA) PLAN PARTZIALAREN ALDAKETAREN ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA BEHIN BETIKO ONARPENA. Hernaniko Udalbatzak 2010eko urriaren 28an egindako osoko bilkuran behin betiko onartu zuen 10.5 Sektorearen, Galarreta, Zatiko Planaren Testu Bategina. Plan hori Donostiako Parke Teknologikoak eta Orona SCoop-ek sustatua da (2011ko apirilaren 1ean argitaratu zen GAOn).

2011ko martxoaren 18an Donostiako Parke Teknologikoak eta Orona SCoop-ek 10.5 Sektorearen, Galarreta, Zatiko Planaren Aldaketa Egitasmoa aurkeztu zuten.

Aldaketa egitasmoaren helburua zen, batetik,

5.- RESOLUCIÓN DE ALEGACIONES Y APROBACIÓN DEFINITIVA DEL LA MODIFICACIÓN DEL PLAN PARCIAL DEL SECTOR 10.5 (GALARRETA) PROMOVIDO POR PARQUE TECNOLÓGICO DE SAN SEBASTIAN, S.A. Y ORONA, S.COOP. En Sesión plenaria celebrada el 28 de octubre de 2010, el Pleno del Ayuntamiento de Hernani aprobó definitivamente el Texto Refundido del Plan Parcial del Sector 10.5 Galarreta, promovido por Parque Tecnológico de San Sebastián y Orona S. Coop. cuya publicación en el BOG se produjo el 1 de abril de 2011.

El 18 de marzo de 2011, Parque Tecnológico de San Sebastián y Orona S. Coop, presentaron un proyecto de Modificación de Plan Parcial del sector 10.5 Galarreta.

Este proyecto de modificación pretendía, por un

sektorearen “bulebar” izenekoaren antolamendua ingurumenari begira hobetzea, horren ondorioz aparkalekurako dotazio publikoa erruz murrizten zelarik; eta, bestetik, sektore honen eta 10.7 sektorearen, Estubegi, arteko bide-lotura egiteko zegoen aurreikuspena behin betiko baztertzea, pentsatzen baita ez dela beharrezkoa.

lado mejorar ambientalmente la ordenación de llamado boulevard del sector, alteración que trae como consecuencia la reducción de la dotación pública de aparcamiento de forma considerable; y por otro lado, descartar definitivamente la previsión de ejecutar una unión viario entre este sector y el 10.7 Estubegi, por considerarla innecesaria.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko martxoaren 29an egindako bileran dokumentu hori hastapenez onartu zuen eta, herritarren interesa babeste aldera, onartutako dokumentuan hainbat baldintza sartu zituen, izan ere sektoreak gai horiei dagokienez, hau da, aparkalekurako dotazioari eta ibilgailuentzako irisgarritasunari dagokionez, lortzen duen funtzionaltasuna bakarrik ikusi ahal izango da aurreikusita dauden kontu guztiak gauzatu eta martxan jarri eta gero.

La Junta de Gobierno local en sesión celebrada el 29 de marzo de 2011 aprobó inicialmente el citado documento, y en la medida en que la correcta funcionalidad del sector en dichas materias (dotación de aparcamiento y accesibilidad vial) es algo que solo podrá ser verificado tras la ejecución y puesta en marcha de las actividades previstas en el mismo, introdujo en el documento presentado algunas condiciones dirigidas a salvaguardar y proteger el interés público.

Egin beharreko argitalpenak egin ondoren, dokumentua jendaurrean ikusgai egon den bitartean Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentuak egindako txostena eta sustatzaileek berek izenpetutako alegazio idazki bakar bat aurkeztu dira, 2001ko maiatzaren 9koa (erregistro zk. 2582).

Efectuadas las publicaciones correspondientes, durante el período de información pública se ha presentado el Informe del Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Guipúzcoa y un solo escrito de alegaciones suscrito por los propios promotores del documento con fecha de 9 de mayo de 2011 (nº registro 2582).

Bide Azpiegituren Departamentuak egindako txostena aldekoa da. Bestalde, sektorearen sustatzaileek eskatu dute ken daitezela Zatiko Planaren Aldaketa hastapenez onartzeko erabakiaren 2. eta 3. baldintzak. Alegatu dutena da aparkalekurako dotazioak legeak ezartzen duen estandarra betetzen duela eta gai honen inguruan sortu izan diren eztabaidak ez direla aparkaleku gehiago jarriz konpondu behar, baizik eta mugikortasun eredu iraunkorrago baten bidez, eta GFAren Bide Azpiegituren Departamentuaren txostenak ez duela beharrezko ikusten sektorera joateko beste ibilgailu-sarbide bat egitea.

El informe del Departamento de Infraestructuras Viarias es favorable. Por su parte, la promoción del Sector solicita que se eliminen las condiciones 2 y 3 del acuerdo de aprobación inicial de la Modificación del Plan Parcial, alegando que la dotación de aparcamientos cumple con el estándar legal, y las eventuales problemáticas sobrevenidas en esta materia no han resolverse mediante nuevas plazas de aparcamiento sino mediante un modelo de movilidad más sostenible y que el informe del Departamento de Infraestructuras de la DFG no ve necesario un segundo acceso rodado al Sector.

Kontuan hartu behar da gai honen inguruan egindako txostena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 95.3 eta 95.4 artikuluek diotena eta Toki Araubidearen Legearen 22.2.c. eta 47.2.ll. artikuluek diotena (ekainaren 30eko /2006 Legea eta apirilaren 2ko 2/1985 Legea, hurrenez hurren).

Visto el informe emitido al respecto y considerando lo dispuesto por el artículo 95 apartados 3 y 4 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo y en los artículos 22.2.c y 47.2.ll de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local,

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko maiatzaren 16an emandako irizpena.

Visto el dictamen de la Comisión de Urbanismo y Medio Ambiente de fecha 16 de mayo de 2011.

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 12 (Beitialarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and. eta Fernandino and., Arratibel jn, Barrio jn eta Anglada and.).

* Kontrako botoak: bat ere ez.

* Abstentzioak: 3 (Chica jn, Pérez jn eta Morcillo and),

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Lehena.- Donostiako Parke Teknologikoa SAk eta Orona SCoop-ek aurkeztutako alegazioak ezestea. Hona hemen arrazoiak:

10.5 Sektorearen, Galarreta, Zatiko Planaren Aldaketa hastapenez onartzeko erabakiaren 2. eta 3. baldintzen bidez udalbatzak ez ditu sektorearen sustatzaileak behartzen lur azpian aparkaleku publiko bat egitera edo 10.7 Sektorearekiko, Estubegi, bide-lotura bat egitera. Aitzitik, egiten ari dena da bermatzea ezen, sektorea gauzatu eta martxan jarri ondoren, kontu hauek direla eta arazoak edo afekzioak sortzen baldin badira, udalak zehaztu ahal izatea zein neurri hartu behar diren haiek konpontzeko (eta neurri horiek ez dute nahita nahiez lur azpian aparkaleku bat egitea edo 10.5 eta 10.7 sektoreak elkartuko lituzkeen bidea egitea izan beharrik, baizik beste era bateko neurri batzuk) eta une horretan hartutako erabaki hori ez dadila izan udalerriak, sektorearen inolako inplikaziorik gabe, bere gain hartu beharko lukeen zama.

Horregatik, alegatzen denaren aurrean, baldintzetan jasota dauden aurreneurriak mantendu egin behar dira, abiapuntutzat hartzen badugu hirigintza interes orokorraren zerbitzura dagoen funtzio publikoa dela, eta horixe da, ondorioz, hirigintza planeamendurako agiri bat eta haren ondorengo aldaketak onartzerakoan besteen gainetik egon behar duen interesa. Beraz, horiek horrela, egin daitekeen gauza bakarra da

La Sra. Alcaldesa-Pta. Lo somete a votación, obteniendo el siguiente resultado:

* Votos a favor: 12 (Sra. Beitialarrangoitia, Sra. Lukas, Sr. Arrieta, Sra. Barrutiabengoa, Sr. Erroitzenea, Sr. Plazaola, Sra. Txintxurreta, Sra. Ezeiza y Sra. Fernandino, Sr. Arratibel, Sr. Barrio y Sra. Anglada)

* Votos en contra: ninguno.

* Abstenciones: 3 (Sr,. Pérez, Sr. Chica y Sra. Morcillo).

Por lo que a la vista de los votos emitidos, se acuerda:

Primero.- Desestimar las alegaciones presentadas por Parque Tecnológico de San Sebastián SA y Orona S. Coop por los siguientes motivos y consideraciones:

Con la condiciones 2ª y 3ª del acuerdo de aprobación inicial de la Modificación del Plan Parcial de Sector 10.5 Galarreta, la Corporación no está obligando a los promotores del sector a asumir la ejecución de un aparcamiento público en subsuelo o la ejecución de la conexión viaria con el Sector 10.7 Estubegi, sino que está garantizando que, tras la ejecución y puesta en funcionamiento del sector, si se producen problemas y afecciones en esas materias, el Ayuntamiento pueda determinar las medidas que es preciso adoptar para su resolución (que ni tan siquiera han de ser necesariamente las de ejecución de un aparcamiento público en subsuelo o la de la ejecución del vial que conecte el sector 10.5 con el 10.7, sino otras de distinta índole) y que dicha decisión adoptada en ese momento no constituya una carga a la que debe hacer frente el municipio, sin implicación alguna del Sector.

La prevención que se contiene en las condiciones frente a las que se alega debe mantenerse, por ello, si partimos de que el urbanismo es una función pública al servicio del interés general y éste es el interés que debe primar, en consecuencia, en la aprobación de un documento de planeamiento urbanístico y en sus posteriores modificaciones. Desde esta premisa únicamente cabe ser reiterativo en los argumentos esgrimidos

aipatutako baldintzak sartzeko emandako argudio ber-berak errepikatzea:

Nahiz eta egia izan Zatiko Planaren Aldaketan sartutako soluzioak indarrean dagoen legediak eskatzen duen estandarra betetzen duela, egia da, halaber, aldaketaren helburua dela eremuaren sustatzaileek Zatiko Plana idazterakoan eta onartzekoan dagoeneko administrazioaren aurrean hartuak zituzten konpromisoak "murriztea", sektorean sor zitezkeela susmatzen ziren balizko eskari funtzionalak konpontzeari dagokionez (aparkalekuak eta ibilgailuentzako irisgarritasuna). Hori dela eta, eta Zatiko Planaren Aldaketan proposatutako irtenbidea a priori ontzat emanda ere, alegia, lur gaineko aparkalekuak kentzea eta 10.7 Sektorearekiko, Estubegi, bide-lotura ez egitea, udalbatzak, bere egitekoaren gainetik egon behar duen interes orokorra aintzat hartuz, sektorea gauzatua eta martxan jarria dagoenera arte geroratuko du neurriak hartu ala ez erabakitzeko eta, hartu behar izanez gero, zein izango diren erabakitzeko unea.

Bigarren.- 10.5 Galarreta sektorearen Zatiko Planaren aldaketa behin betikoz onartzea. Plan hori LKS-Sestrak egina da, 2011ko martxoan, eta Donostiako Parke Teknologikoa SAk eta Orona SCoop-ek sustatua. Onartzeko baldintza da aipatutako dokumentuan honako zuzenketa hauek sartzea:

1.- Dokumentuaren ordenantzen 11. artikuluaren lehen idatz zatia honela geratuko da idatzita:

*"El Proyecto de Urbanización Pública podrá reajustar las rasantes del viario y los ejes de los mismos, sin que ello tenga consideración de modificación del Plan Parcial, pudiendo efectuar de forma limitada a la zonificación pormenorizada de los sistemas locales, entre ellos el viario, siempre que de ello no se derive incremento de la superficie de las parcelas privadas, ni disminución de la superficie global del suelo ordenado como sistema local de espacios libres."*

2.- Dokumentuaren ordenantzen 29. artikuluaren testuari idatz zati hau

en su día para la inclusión de dichas condiciones:

Aun siendo cierto que la solución incorporada en la Modificación del Plan Parcial cumple con el estándar de aparcamiento exigido por la legislación vigente, también es cierto que el objeto de la modificación es "reducir" los compromisos que la promoción del ámbito ya tiene asumido frente a la administración en la solución de las posibles solicitaciones funcionales que, al redactarse y aprobarse el Plan Parcial, se intuía podían originarse en el Sector (de aparcamientos y de accesibilidad viaria). Por ello, y dando por buena a priori la solución propuesta en la Modificación de PP de supresión de aparcamientos públicos en superficie y de la no ejecución de la conexión viaria con el sector 10.7 Estubegi, la Corporación, atendiendo al interés general que debe presidir su actuación, se reserva la valoración de si son precisas adoptar medidas a ese respecto, y la determinación de cuáles son las medidas a adoptar al momento en el que el Sector se encuentre ejecutado y puesto en funcionamiento.

Segundo.- Aprobar definitivamente la Modificación del Plan Parcial del Sector 10.5 Galarreta elaborado por LKS-Sestra con fecha de marzo de 2011 y promovido por Parque Tecnológico de San Sebastián SA y Orona S.Coop., condicionando esta aprobación a la introducción en el referido documento de las siguientes correcciones:

1º- El primer párrafo del artículo 11 de las ordenanzas del documento quedará redactado de la siguiente forma:

*" El Proyecto de Urbanización Pública podrá reajustar las rasantes del viario y los ejes de los mismos, sin que ello tenga consideración de modificación del Plan Parcial, pudiendo afectar de forma limitada a la zonificación pormenorizada de los sistemas locales, entre ellos el viario, siempre que de ello no se derive incremento de la superficie de las parcelas privadas, ni disminución de la superficie global del suelo ordenado como sistema local de espacios libres."*

2º- El texto del artículo 29 de las

gaineratuko zaio:

*"Si por razones funcionales quedara debidamente justificada su necesidad, de conformidad con los criterios establecidos en la legislación vigente y previa aprobación del correspondiente Plan Especial, se podrá ordenar bajo rasante del suelo destinado a sistema local viario el uso de aparcamiento público."*

3.- Zatiko Planaren B Dokumentuan *"Directrices de Organización y Gestión de la ejecución"* idatz zati berri bat sartuko da, hau dioena:

*El programa de Actuación Urbanizadora incorporará, entre las obligaciones que recaen sobre los promotores del sector, el compromiso de adoptar las medidas pertinentes de cara a cubrir las necesidades de aparcamiento y accesibilidad rodada generadas por las actividades a implantar en el sector, y en este sentido, imputará a éstos la obligación de dar solución a su costa y cargo de las eventuales situaciones problemáticas sobrevenidas tras la ejecución y puesta en funcionamiento del sector en estas materias.*

Hirugarrena.- Plan Partzialaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintza Planeamenduko Administrazio Erregistroan gordetzeko.

Laugarrena.- Legez egin beharreko argitalpenak egitea, bereziki Testu Bateginaren Hirigintza Arauena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 18:05 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.

ordenanzas del documento se incorporará el siguiente párrafo:

*"Si por razones funcionales quedara debidamente justificada su necesidad, de conformidad con los criterios establecidos en la legislación vigente y previa aprobación del correspondiente Plan Especial, se podrá ordenar bajo rasante del suelo destinado a sistema local viario el uso de aparcamiento público."*

3º- En el Documento B del Plan Parcial *"Directrices de Organización y Gestión de la ejecución"* se incorporará un nuevo párrafo, en el que se señalará:

*El Programa de Actuación Urbanizadora incorporará, entre las obligaciones que recaen sobre los promotores del sector, el compromiso de adoptar las medidas pertinentes de cara a cubrir las necesidades de aparcamiento y accesibilidad rodada generadas por las actividades a implantar en el sector, y en este sentido, imputará a éstos la obligación de dar solución a su costa y cargo de las eventuales situaciones problemáticas sobrevenidas tras la ejecución y puesta en funcionamiento del sector en estas materias.*

Tercero.- Proceder a remitir una copia del Plan a la Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa, para su depósito en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

Cuarto.- Efectuar las publicaciones legalmente preceptivas, en especial la de las Normas Urbanísticas del Texto Refundido, de conformidad con lo previsto en el artículo 89 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

Y sin mas asuntos que tratar y siendo las 18:05 horas, se levanta la sesión de lo que yo, el Secretario accidental doy fé.